

GAIA

# EUSKARAREN ERABILERA ETA ELIKADURA SENDOTZEKO AUKERAK HEZKUNTZATIK

GAIA

KONRADO  
MUGERTZA

HEZKUNTZAKO  
IKUSKARIA

**S**usmoa dut gauza berri gutxi esan daitekeela gai honen inguruan, hezkuntza giroan asko hitz egin baitugu honetaz aspaldion. Alabaina, enfasia non jartzen den, edo zer elementu aukeratzen diren, hortxe dagoke bakoitzaren ekarpenaren balioa. Eta ni saiatuko naiz nirea egiten.

Gaia kokatzeko hezkuntzaz eta euskal eskolaz kontsiderazio orokor batzuk egin ondoren, eta gaiaren konplexutasunaren ikuspuntutik begirata, nire ustez inportanteak diren lau arlotan eragiteko proposamena egingo dut: eskola “eskolago”, eskola euskaldunago, faktore emozionalak eta gazteak.

SHSTJFEYEJMSANDIBSUMVEJLITVENTPRAFFSSEFOUJE

Apaltasunez, nire eskarmentu propioa eta hezkuntza komunitatearen babes zabala duten iritzi eta gogoetak izango ditut abiapuntu eta ez neurozientzia, psikolinguistika eta soziolinguistikako ikerketak, dagokigun arloan berebiziko garrantzia eta zeresana duten disziplinak, baina nire menpetik urrun geratzen direnak.

## ESKOLA ETA HEZKUNTZA

Eskola eta hezkuntza ez dira gauza bera eta sarritan nahastu egiten ditugu. Gaur egun *etengabeko hezkuntza*, *bizian zeharreko hezkuntza*, *hezkuntza ez formala* eta *hezkuntza informala* bezalako esapideek sekulako presentzia eta dimentsioa hartu dute hezkuntzaren eremu zabalean. XXI mende honetan, eskola ez da jada ezagutzaren transmisiorako eta ikaskuntzarako instituzio bakarra; hezkuntza osoaren parte bat baino ez dagokio eskolari. Hala ere, garbi utzi behar da, eskola ikasteko gune pribilegiatua da, zinea ikusteko zinema aretoa den bezalaxe. Ni, lerro hauetako hausnarke-tan hezkuntza arautu edo eskolaren eginkizun eta jardueran zentratuko naiz.

Eskola aldi berean da denbora bat, espazio bat, egitura bat eta instituzio bat, baina edonola hartuta ere, bere eginkizuna pertsona oso gazteengan eta luzaroan garatzen denez, arlo bereziki delikatua eta potentzialitate ikaragarria duena. Izakera horretatik datoz alde batetik eskolan jartzen ditugun espektatibak, sarritan neurritz kanpokoak, eta bestetik eta batzuetan, tentazio ez legitimoetan jausteko arriskua (adoktrinamendua...). Gaur egun, eskola bikaina izatea herri eta nazio desberdinen erronka nagusietako bat bihurtu da eta hezkuntzari agenda politikoan ezartzen zaion lehentasuna, deklarazioen mailan behintzat, horren adierazgarri da. Izan ere, “hezkuntzak altxorra gordetzen du”, Jacques Delorsen hitzetan.

Hezkuntzaren xede orokorra hiru dimentsio nagusiren garapena litzateke: dimentsio pertsonala; dimentsioa soziala, kultura eta gizarte batean kokatuak baikaude; eta kosmikoa, Naturaren parte garen aldetik. Beste konkezio maila batean, zehazkiago adierazita, gure hezkuntza sistemak *hezkuntza kompetentzien* garapena du helburu. Hezkuntza kompetentzien<sup>1</sup> garapenaren planteamendu hau –azpimarratzea komeni da– Europa mailan hezkuntza

arloan lortu den kontsentsu handieneko lorpena izan da, eta gaurko gizartearen beharrei erantzuteko eta berrikuntzarako aukera ona irekitzen digu.

Eskolak gizartean duen kokapenaren inguruan, egoki iruditzen zait gogoetatxo hau, hitz joko bitxia eskaintzen duena. Batetik, eskola gizartearen “isla” da, komunitate zabalago batean txertatuta dagoelako eta, ondorioz, bertan azaleratzen direlako gizartearen erronkak eta arazoak. Bestetik eta aldi berean, eta batzuetan oso nabarmen gainera –euskara hartzen badugu erreferente gisa, esaterako–, “irla” bat ere izan daiteke, zerikusi gutxi duena inguruarekin. Arlo batzuei erreparatuz –euskara edo bizikidetzatza, adibidez– esan liteke eskola gizartearen “simulazioa” dela eta gizartea “errealitatea” bera, opera baten entsaio orokorra eta benetako errepresentazioa bezala.

Arlo batzuei erreparatuz –euskara edo bizikidetzatza, adibidez– esan liteke eskola gizartearen “simulazioa” dela eta gizartea “errealitatea” bera, opera baten entsaio orokorra eta benetako errepresentazioa bezala

## NON GAUDEN EUSKAL ESKOLAN GAUR

Kompetentziak, hirueletasuna, curriculumak, euskara, diagnostiko ebaluazioak, bizikidetzatza, digitalizazioa, etorkinen integrazioa, kalitatea... horriek dira une honetan euskal eskolak puri-purian dituen erronka nagusietako batzuk, eztabaida asko eta sakonen iturri.

Euskarari eta euskararengan eragina duten alderdi batzuei begira, zer izan daiteke esanguratsua? Ebidentzia batzuk hor daude eta joera orokor batzuk ere argi xamar ikusten direla esan daiteke. Aipa ditzadan batzuk:

- Urtez urte eta modu nabarian D eredia, oro har, goraka doa eta A eredia beheraka, ikasleen portzentaien arabera. Alabaina, A eredia ikasle tipologia konkretu batzuen irla edo gotorlekua bihurtzeko arriskua egon liteke. (Geroago itzuliko naiz honetara).

- Etorकिन kopurua, beste autonomia er-kidego eta inguruko herriekin konparatuta handia ezpada ere, gora doa eta, etorkin gehienak latina-merrikarrak izanik, A ereduak aukeratzeko preferentzia erakusten dute, populazio autoktonoaren joera orokorraren kontra.

- Etorकिन kopuru eta portzentaietan, diferentzia handiak daude sareen artean –publikoa, ikastolak, Kristau Eskola– zona geografiko bereko ikastetxeen artean ere bai.

- Irakasle euskaldunen portzentaia altua da eta goraka doa.

- Euskararen ezagutza zabaldu egin da euskaldunen kopuruari begiratzuz gero, bai eskolan eta bai gizartean.

- Euskararen erabilera soziala ez da neurri horretan hedatu eta zenbait leku eta arlotan, murriztu ere egin da.

- Zer esan euskararen kalitateaz? Ezer gutxi hitz egiten dela honetaz eta hori ere oso adierazgarria dela. Kantitateak bakarrik ardura al du?

## PENTSAMOLDE LINEALA vs PENSAMOLDE KONPLEXUA

Autoaren azeleradorea sakatu eta, ondorioz, arinago joan. Ekintza bati aurrez jakina den erreakzio bat dagokio. Hauxe izan daiteke pentsamolde linealaren adierazpide ximple eta argi bat.

Euskararen erronka eta problematiken aurrean ere sarritan erabili izan ditugu diagnostiko eta proposamen sinpleegiak, pentsamolde linealaren arabekoak. Hainbat esaldi eta espresio aipa daitezke

horren erakusgarri eta inolaz ere arrotzak egingo ez zaizkigunak: “eskolak salbatuko du euskara: denek eskolan euskara ikasiz gero...”; “legeetan jaso jaso behar dena eta kito, egina dago”; “aginte politikoa izanez gero...”; “euskara ofiziala eginez gero...”; “D eredu bakarra eta unibertsala jarri eta konponduta dago”; “baliabide nahikoa jarriko balitz...”; “inposatu beste erremediorik ez badago...”. Seguruenik, espresio horiek guztiek euskararen defentsa sutsua erakusten dute eta beraren aldeko apostu zalantzagabekoa.

Pentsamolde horren arabera, noski, hainbeste urteren buruan lortutako emaitzak kaskarrak izan behar, nahitaez: “eskolak porrot egin du” edo “legeek porrot egin dute”, eta horrelako balorazio ezkorrak behin baino gehiagotan entzun eta entzuten ditugu.

Alabaina, euskalduntze prozesua, eta, bereziki, euskararen hedapen soziala, gurea bezalako gizartean, prozesu sozial konplexuak dira eta ez du zentzurik pentsamolde lineal eta ximple hori aplikatzeak. Zer esanik ez, esamolde horietan aipatzen diren elementu asko positiboak dira, beharrezkoak dira eta lagundu egiten dute: ofizialtasuna, aginte politikoa, legeak, baliabideak... Baina giltza horietan dagoela pentsatzea errealitatearen konplexutasuna kontuan ez hartzea da eta, sarritan, kaltegarria ere gertatzen da. Berriro ere hasierako adibidera itzuliz, azeleradoreari sakatuz joan gaitzake arinago autopista batean, bai, baina gure errealitate sozialak zuloz beteriko “astopista” baten antz handiagoa du, eta abiadura handitzeak bazterrean botata utz gaitzake. “Hay amores que matan” dio gartzelaniatzko esamolde xebreak.

Sistema konplexuetan, alde batetik, faktore asko daude jokoan; bestetik, faktore batek eragin positiboa eta negatiboa izan ditzake aldi berean, beste faktore horietako askorekin elkarrengaitan duelako. Beraz, palanka non ezarri? Non jarri indarrak? Erantzun sinplerik ez dago eta prozesuaren diseinu segururik ere ez.

Euskararen garapenak XXI mendean, eskolan zein familian edo kalean,

Ofizialtasuna, legeak edo baliabideak oso aintzat hartzekoak eta beharrezkoak badira ere, beste kontzeptu batzuk ageri zaizkigu askoz eraginkorragoak, alegia, partaidetza, enpatia, elkarrizketa, akordioa...

ERUDDULUREFAKUNID

konplexutasun horri egin behar dio aurre, “metodologia” egokiaz. Eta gorago aipatutako elementuak oso aintzat hartzekoak eta beharrezkoak badira ere –ofizialtasuna, legeak edo baliabideak–, beste kontzeptu batzuk ageri zaizkigu askoz eraginkorragoak, alegia, partaidetza, enpatia, elkarriketa, akordioa... geroago aipatuko ditudan faktore emozionalekin lotura zuzena dutenak, hain zuzen ere.

Ezinbestean, bide hori jorratu behar dugu eta sinestu helmugara ondoen eta lasterren ailegatzeko, astiro eta sendo abiatu behar dugula.

## ESKOLA “ESKOLAGOA”

Zalantzarik gabe, azken mende laurden luze honetan, euskal hezkuntza sistema eta eskola mundua izan dira euskalduntze prozesuan ahalegin handiena egin duten gizarte arloak eta, euskara erreferentziatzat hartuta, eraldaketa handiena izan dutenak. Garai bateko agintariek horren aldeko apostua egin zuten eta euskal gizarteak urtez urte berretsi egin du apostu hori. Hezkuntzako sektore desberdinen esfortzua handia izan da, bereziki irakasleena, eta euskal gizartean ahalegin horrek izan duen eragina, mugatua bai, baina ikaragarria izan da.

Alabaina, sarritan gehiegi eskatzen diogu eskolari, bai arlo honetan eta bai beste batzuetan ere, eta eskolak badu nahikoa eta sobera bere eginkizunari egoki erantzuten, hezkuntzaren kalitatearen<sup>2</sup> erronkari eusten.

Nola egin aurrera kalitatearen bide horretan? Bi maila bereiztuko ditut: ikastetxea eta hezkuntza sistema.

“Hezkuntza sistemak ez dira hobeak edo txarragoak; ikastetxeak dira hobeak edo txarragoak direnak”. Joel Klein New Yorkeko eskola publikoen arduradun nagusiaren hitzak ditugu horiek eta asko dira gaur egun baieztapen horrekin bat datozen iritziak. Egia esan, ikastetxea unitate mugatua eta eskuragarria da, eta erraz eta epe laburrean nabari

Eskolak “eskolago” izan behar du eta zenbat eta eskola bikainagoak izan, horren parekoak izango dira gure gazteen kompetentzia mailak ere, euskararena barne, eta gure hiritarren prestakuntza

daiteke ikastetxe mailako erabaki eta jardueren eragina, onerako zein txarrerako. Azken urteotako diagnostiko ebaluazioek ere horixe erakusten digute argiro, alegia, alde nabarmenak daudela antzerako ikastetxeen artean. Bestela esanda, ikastetxearen *balio erantsiaren* kontzeptua ekarri digute ebaluazioek, lehendik ere susmatzen genuena baina orain datuetan eta ebidentzietan funtsatua.

ELGEren<sup>3</sup> hezkuntzaren esparruko ikerlanen arabera, ikastetxe on batek lau hanka sendo ditu, ondo ezarriak eta ondo garatuak:

- a) Irakasleak: prestakuntza, profesionaltasuna,
- b) Hezkuntza komunitatearen partaidetza: familien, ikasleen, irakasleen... arteko komunikazioa, parte hartzea erabakietan,
- c) Eskola giro ona, inguruari irekia,
- d) Lidergoa: zuzendaritzaren lidergoa eta ikastetxearen autonomia.

Lau faktore nagusi horietako batzuk modu zuzenean jokatzen dute, eta beste batzuk zeharkakoan, baina ikasleen eskola emaitzetan eragina duten faktoreak dira guztiak ere.

Era zabalagoan, sistemaren mailan ikutu beharreko elementuak daude, aurrekoak bezain inportanteak izan daitezkeenak. Nagusiki, ondokoak azpimarratuko nituzke:

- a) Curriculumaren diseinu egokia eta adostasun maila zabalekoa, euskara eta euskal kultura uztartzen dituenak,
- b) Pedagogia egokiak: kompetentzien garapenera egokituak eta ikaslearen autonomiaren garapenera oinarrituak,
- c) Metodologia, jarduera eta antolamendu arrakastatsuak. Hizkuntzen metodologia egokiak, hizkuntzen trataera bateratua...,
- d) Irakaskuntza pertsonalizatua,
- e) Ikasmaterialak,
- f) Ebaluazioaren (ikastetxeena, irakasleena, zuzendaritzena...) eta kontu ematearen kultura.

Euskal eskolak eta euskal hezkuntza sistematik badute zer hobetu munduko parametro onetan kokatzeko eta gaurko hezkuntzaren jarduera arrakastatsu eta bikainak bereganatu eta moldatzeko, euskal gizartearen eta gizarte zabalaren premia eta erronkei garantiaz erantzute aldera.

Eskolak asko egin du eta asko egiten du baina gehiago egin dezake eta, batez ere, hobeto egin dezake. Hau da, eskolak “eskolago” izan behar du eta zenbat eta eskola bikainagoak izan, horren parekoak izango dira gure gazteen konpetentzia mailak ere, euskararena barne, eta gure hiritarren prestakuntza.

“Politikan balio duena emaitzak dira” Max Weber-en hitzak hona ekarriz esan genezake ere “Hezkuntzan balio duena emaitzak dira”, baina emaitzak zentzu zabalenean ulertuz, hezkuntzaren xede noble eta jasoari dagozkionak.

## ESKOLA EUSKALDUNAGOA

Ikastereduen sistemak ahalbidetu egin du euskal hezkuntza sistemaren euskalduntzea eta, ondorioz, bultzada ikaragarria eman die euskararen berreskuratze eta normalizatzeko prozesuei. Sistema hori akordio sozial eta politiko zabaleko fruitu izan zen eta benetan emankorra izan da, sarritan, nazioarte mailan etxe barruan baino gehiago eta hobeto baloratua. Aitorpen honek, ordea, ez ditu estalpean utzi behar ikastereduen sistemaren ahulezia batzuk. Azken 30 urtean eskolaren soziologia asko aldatu da eta agerian geratu dira hasieran aurrikusi ez ziren ondorio batzuk. Gainera, une honetan baditugu hainbat ebaluazioren emaitzak ere, tartean, urtero egiten hasi diren diagnostiko ebaluazioenak.

Zer ondoriozta dezakegu ikastereduen ibilbideari eta gaurko egoerari erreparatuz? Ba al dago adostasun nahikoa hezkuntza komunitatean eta euskal gizartean egin daitekeen diagnostikoaz eta proposa daitezkeen bide berriez? Azter dezagun.

D ereduak zer hobeturik badauka ere, A ereduak, oro har, ez dira urrunetik ere lortzen hizkuntza helburuak euskararen konpetentziari dagokionez. Hala berresten dute egin diren ebaluazio desberdinek eta, oso esanguratsua iruditzen zaidana, hala jasotzen zen ere 2006an Eusko Legebiltzarrean,

PPk ezik beste alderdi politiko guztiek izenpetu zuten akordio historikoan. Izan ere, Legebiltzarrak eskaria egiten zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari irakaskuntzaren esparruan erkidegoko bi hizkuntza ofizialak maila guztietan menperatzea bermatuko zuen eredu berri bat berehala aztertu eta lehenbailehen praktikan jartzeko, irakaskuntzan indarrean zegoen –eta dagoen– ereduaren sistemak euskara behar bezala ezagutzea bermatzen ez zuelako.

Baina azpimarratu egin behar da zerbait: euskararen konpetentzia mailaren emaitzak ezin dizkiogu, beste barik, ereduaren sistemari bakarrik egotzi. Xinplekerian erortzea litzateke. Behin eta berriz esaten da eskola ezinbesteko zutabea dela gizartearen euskalduntze eta euskararen normalizatziorako baina, aldi berean, ez dela zutabe bakarra eta, batzuetan, nagusiena ere ez. Lehenago aipatzen nuen batzuetan espektatiba gehiegi jarri izan ditugula eskolak lor dezakeenean eta uste dut arlo honi dagokionez horixe gertatu zaigula.

Beste alde batetik, ereduaren sistemak baditu bere efektu kolateral ez desiratuak, eta denboraz argiro ikusten ari garenak. Euskadiko Eskola Kontseiluak<sup>4</sup> behin eta berriro jo du atentzioa honen inguruan. Sistema honek ikasleak banatu, sailkatu egiten ditu eta horrek ez dio inolako mesederik egiten eskolak bultzatu behar duen eta hain beharrezkoa dugun kohesio sozial eta kulturalari. Izan ere, estatistikoki, zera egiaztatzen da: A eredu publikoetan ISEK<sup>5</sup> baxuko ikasleak kontzentratzen dira eta A eredu pribatu kontzertatuetan, aldiz, ISEK altukoak. Hau da, ikastereduen sistemak, hala nahi gabe, ikasleak irizpide sozio-ekonomiko eta kulturalen arabera sailkatzen ditu neurri handi batean. Horren ondorioz, ikastetxe eta taldeen espektatiba akademikoak, sarearen eta ereduaren arabera, oso desberdinak dira eta, azkenik, eskola emaitzak ere bai.

Fenomeno hau ez da ia nabaritzen lurralde eta zonalde batzuetan, A ereduak modu naturalean ia desagertzeaz delako, baina oso nabarmena da gaztelera nagusi den zonalde soziolinguistiko batzuetan, esaterako, Bizkaiko Ezkerraldean. Zonalde horietako ikasleentzat, askotan eskola da euskara ikasi eta erabiltzeko aukera eskaintzen dien eremu bakarra. Eta esan beharrik ez dago, zeharo eskualde erdaldunak izanik ere, oso diferentzia esanguratsuak daudela euskararen konpetentzia mailari dagokionez ikastereduen artean.

Nire ustez, eta bat nator *Euskadiko Eskola Kontseiluak* honen inguruan egindako gogoetekin, bada garaia akordio sozial eta politiko berri eta zabal batean oinarrituz, ikastereduen sistema gainditu eta, ikerketa eta ebaluazioen eskutik eta modu progresiboan –bai denboran eta bai antolamenduan–, eredu “bakar” eta malgu baterantz abiatzeko. Bada garaia, nire iritziz, jarrera maximalistetatik aldendu –gatzelania ikasiko ez duten beldur ustela batetik, edo D ereduaren inposizio unibertsala bestetik– eta eskubideen talkaren auzia ere, ahal dela, irizpide pedagogiko eta teknikoek mailara ekarriz bideratzeko. Ez da erraza gurea bezalako gizarte konplexuan baina, nire uste apalean, bai eta hezkuntza komunitatearen gehiago zabal batenean ere, ikasleek bi hizkuntza ofizialak maila egokian ikasteko eskubidea –legeetan jasotzen dena, besterik ez– lehenetsi egin behar da gurasoen eredu aukeratze eskubidearen aurrean –hau ere legeetan jaso–. Ahal dela, irizpide teknikoak aplikatuz eta, beti ere, kontsentsu zabalaren bidetik.

jokabide batzuk, eskolan ez ezik gizartearen esparru anitzetan ere landu eta azaleratu beharrekoak.

Euskarari, oro har, positibotasuna asoziatu behar diogu eta ahalegindu egin behar dugu sarritan hain arruntak izan diren antsietatea eta presioa jeisten, batez ere euskararen jabetzearekin lotuak. Hortaz, presak eta inposizioak mesede baino gehiago kaltegarri izan daitezkeela baloratuz, euskararentzako lagunak irabazi behar ditugu, gureganatu, enpatia sortu, umorea erabili, atxikimendua lortu.

Kasu konkretu bat kontatu nahi nuke hurrengo argumentuei oinarri emateko. Ni bizi naizen herrian, Getxon, behin baino gehiagotan izan naiz gutxi gorabehera honelako egoera baten lekuko: igande goiza, guraso gazte euskaldunak zerbait hartzen, ikastolan ikasiak, euren seme-alaba txiki-kin. Gurasoak euren artean gaztekeraz, noski, eta umeekin euskaraz, noski, eta umeei euren artean euskaraz egin dezaten eskatuz, noski. Eta burura

Euskararen hedapen sozialak nekez egin dezake aurrera maila pertsonaleko jarrera eta jokabide batzuei eutsi ezik

## FAKTORE EMOZIONALAK

Azken urteotan, eta zenbait prozesuren konplexutasunaz ohartzeaz batera, presentzia nabarmena hartu du inteligentzia emozionalaren kontzeptuak giza harremanetan oinarritzen diren jardura eta proiektuetan, esate baterako, hezkuntzan eta enpresa munduan. Giza sistema konplexuen dinamika bere osoan ulertu eta beraietan eragin ahal izateko, “arrazoiaren” parametroez gainera, “emozioarenak” edo faktore emozionalak nahitaezkoak dira.

Euskararen arlori etorritik, euskarak duen balio sinboliko eta identitarioa dela-eta, sarritan alderdi emozionalak gailentzen dira beste guztien artean. Gainera, Euskal Herrian eta euskal eskolan present dauden sentsibilitate eta ikuskera desberdinek derrigortu egiten gaituzte aspektu emozionalak oso aintzat hartzera.

Aipa ditzadan, bada, faktore emozional horiekin zerikusi zuzena duten sentimendu, jarrera eta

datozkidan zalantza eta galdera batzuk: Familia “euskaldun” horietan segurtatuta al dago euskararen transmisioa hurrengo belaunaldira? Zer mezu izkutu transmititzen zaie umeei nagusien jokabide hori dela medio? Zerk huts egiten du halako kasuetan eta zergatik?

Euskararen hedapen sozialak nekez egin dezake aurrera maila pertsonaleko jarrera eta jokabide batzuei eutsi ezik. Konpromisoa, koherentzia, kontzientziazioa, pertseberantzia, jarrera proaktiboak, pertenenentzia sentimendua edo militantzia bezalako terminoak *demodé* xamar ematen dute gaurko mundu pragmatiko eta konpetitiboan, eta modernitatearekin bat ez datozela iragartzen duten mezuak ere ez dira falta gure artean. Edonola dela ere, gaur egun, inteligentzia emozionalak eta internetek erakusten digute gutxi batzuen ekintzaren efektua asko biderka daitekeela gizarte sareetan eta, beraz, “balore” horiek gutxietsi ez ezik, sustatu eta baliatu egin behar ditugu.

Azkenik, hezkuntzari eta ikasleei oro har egozten zaien bekatu nagusietako bat aipatu behar da alderdi emozionalen atal honetan: motibazioa edo, hobeto esan, motibazio falta. Errealitate latz horren azterketan eta jatorrian sartu gabe –ez da hau ueña, ez lekua ez eta ni ere inor horretarako– gauza jakina da motibazioa ikaragarrizko giltza eta motorea dela ikaskuntzarako eta edozein proiektu burutzeko. Uste dut eskola munduan denok ere gogoeta egin behar dugula motibazioa eta ilusioa pizteko, baina kontuan izanik ez bata eta ez bestea ezin direla irakatsi, maitasuna eta irakurzaletasuna, esaterako, derrigortu ezin diren bezala. Ingurumen aproposa sortzea eta egokiro ereitea beste aukerarik ez dugu horiek loratu daitezten.

Uste dut eskola munduan denok ere gogoeta egin behar dugula motibazioa eta ilusioa pizteko, baina kontuan izanik ez bata eta ez bestea ezin direla irakatsi. Ingurumen aproposa sortzea eta egokiro ereitea beste aukerarik ez dugu horiek loratu daitezten

ERUDDULOREFAGUINIDN

## GAZTEAK

“Babeli gorazarre” Patxi Baztarrikaren liburutik jaso dut ondoko aipamena, David Crystal-en hitzaurretik hain zuzen: “eta badakigu gainera ez dagoela hizkuntzarik gazteenen sostengu eta garririk gabe biziko denik”. Guztiz bat etorri baieztape horrekin, jakina, kontua da nola lortu gazteen, ikasleen konpromisoa, sostengu hori. Galdera sakon horri erantzuna emateko pretentsiorik gabe, eta eskola munduan murgilduta gaudela, nire gogoeten zertzelada pare bat behintzat utzi nahi nituzke hemen.

Eskola umeentzat eta gazteentzat diseinatu dago, eurak dira jarduera guztien helburua, eta hala behar du izan. “Dena gazteentzat baina gazteak gabe”, ordea, errealitatetik hurbil dagoen egoera bat dela zinez uste dut, eta despotismo ilustratu-

ren nolabaiteko eskolako bertsioa izan liteke.

Gaurko hezkuntzaren inguruko teorizazio, hausnarketa, diskurtso eta arauak ere jasotzen dutenaren arabera “ikasleak berak izan behar du bere ikaskuntza prozesuaren protagonista” eta hor dauke egon helburu horren zerbitzu zuzenean *Ikasten ikasteko kompetentzia* eta *Norberaren autonomia-rako eta ekimenerako kompetentzia* ere. Alabaina,

noraino dira protagonista gure ikasleak? Garatu al daiteke benetan norberaren autonomia gure eskola askotan ditugun inertzia eta eskema zaharkituen barruan?

Nire ustez, gazteen partaidetzari eskolan beste optika batetik eutsi beharko genioke eta behetik gorako prozedurak areagotu, parte hartzeko ez ezik, erabakitzeko ere benetako posibilitateak izan ditzaten. Arauak goitik inposatzen direnean, gazteen artean, sarritan, arau horiek haustea prestigiotzat hartzen da. Arauak eurek landuak direnean, ordea, arau horiei eustean dago prestigioa euren artean. Hori hala dela askotan egiaztatzen dugu eskoletan eta gure harremanetan gazte jendearekin.

Prestatu egin behar ditugu gazteak eta lagundu egin behar diegu erabakiak hartzen ikas dezaten baina, aldi berean, nagusiok arriskatzeko eta konfiantza emateko prest egon behar dugu.

Badira munduan, eta gure eskola batzuetan ere bai, filosofia honekin bat datozen planteamendu eta esperientzia arrakastatsuak, bai eta ahots ospetsuak ere esparru akademikoan<sup>6</sup>. Besteak beste, euskal eskolan euskararen erabilera eta elikadura sendotzeko ere jorratu beharreko bide berriak dira.

## OIN-OHARRAK

1. Zer da kompetentzia bat? Baliabide multzoa (kontzeptuak, prozedurak, jarrerak, emozioak...), pertsonak era bateratu eta integratuen mobiliza dezakeena, egoera zehatz bat, testuinguru konkretu baten barruan, eraginkortasunez ebazteko. Jardueraren bitartez frogatzen da.

2. KALITATEA, egungo hezkuntza politikan, BIKAINTASUNA eta EKITATEA kontzeptuen batura da.

3. ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundea. Gazte-leraz, OCDE.

4. Euskadiko Eskola Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren kontsulta eta aholkularitza erakundea da hezkuntza gaietarako. EAEko hezkuntzan (publikoan zein itunpekoan) zeresana duten eragile sozial guztiek osatzen dute, alegia, gurasoak, irakasleak, ikasleak, administrazioa, sindikatuak, hezkuntzako patronalak, enpresariak eta udalak, nagusiki.

5. ISEK: Indize Sozio Ekonomiko eta Kulturala.

6. Ramón Flecha eta Ikas Komunitateak.



LORTUKO DUGU



SARRERA ENT...




036525

E

DE

nº 0672

Venta DEPARTS contenidos  
Palacio de Congresos, Paseo de la Castellana, 29



U

N

S



Guggenheim  
BILBAO




THE  
PICASSO  
STORY

New in Berlin!

Monday 09:00 - 20:00 Uhr  
Tuesday 10:00 a.m. - 08:00 p.m.

Gen...  
Rel...  
Le...  
Ingenious  
Rebellious  
Passionate



i

K

K



MUSEO NACIONAL  
DEL PRADO

Pº del Prado s/n  
www.museoprado.com  
Teléfono: +34 902 10 10 10

E



Parque Juan Carlos I  
Zonas 3 y 5  
Días:  
9 de febrero a 19 de febrero 1995  
12.00 a 20.00

IFEMA  
Feria de Madrid

Dibujo: Antoni Tàpies



Nº 151332

GAZTE

# OPORTUNIDADES PARA LA CONSOLIDACIÓN DEL USO Y MANTENIMIENTO DEL EUSKARA DESDE LA EDUCACIÓN

\* TRADUCIDO EN LA REDACCIÓN

KONRADO  
MUGERTZA

INSPECTOR DE  
EDUCACIÓN

Sospecho que pocas cosas se pueden decir sobre este tema, puesto que en el ambiente educativo hace tiempo que venimos hablando sobre ello. Sin embargo, el valor de cada aportación personal estará allí donde se ponga el énfasis, o en los elementos escogidos. Yo trataré de hacer la mía.

Tras hacer unas consideraciones generales sobre la educación y la escuela vasca para ubicar el tema, y mirado desde el punto de vista de la complejidad del mismo, haré una propuesta con la idea de incidir en cuatro apartados en mi opinión importantes: escuela “más escuela”; escuela más *euskaldun* (vasco-parlante); factores emocionales; y los jóvenes.

GAZTE

SHSTDEEYUJMSANDIBSUMVEUUITVENTPRAEFSSEUUE

Humildemente, tomaré como punto de partida mi propia experiencia, así como opiniones y reflexiones que cuentan con un gran apoyo de la comunidad educativa, pero no las investigaciones de la neurociencia, la psico-lingüística y la socio-lingüística, disciplinas con una gran importancia y mucho que decir en el campo que nos corresponde pero que quedan lejos de mi alcance.

## ESCUELA Y EDUCACIÓN

Escuela y educación no son la misma cosa y las confundimos con frecuencia. Actualmente expresiones como *educación continua*, *educación a través de la vida*, *educación no formal* y *educación informal* han adquirido una enorme presencia y dimensión en el amplio campo de la educación. En este siglo XXI la escuela no es la única institución para la transmisión del conocimiento ni para la enseñanza; a la escuela sólo le corresponde una parte de la educación completa. De todas formas hay que dejar muy claro que la escuela es un centro privilegiado para aprender, como la sala de cine lo es para ver cine. Yo por mi parte, en la reflexión que hago a través de estas líneas, me centraré en la misión y actividad de la educación reglada o escuela.

La escuela es simultáneamente un tiempo, un espacio, una estructura y una institución; pero, se mire por donde se mire, su cometido lo realiza con personas muy jóvenes y, como se desarrolla durante largo tiempo, es un campo delicado y con una potencialidad enorme. De ese carácter provienen, por una parte, las expectativas que depositamos en la escuela, muchas veces desmesuradas, y, por la otra, y algunas veces, el riesgo de caer en tentaciones ilegítimas (adoctrinamiento...). Actualmente, el poseer una escuela excelente se ha convertido ya en uno de los principales retos de los diferentes pueblos y naciones, y como muestra de ello está la preferencia que se concede en la agenda política a la educación, al menos a nivel de declaraciones. De hecho “la educación guarda un tesoro”, en palabras de Jacques Delors.

El objetivo general de la educación sería el desarrollo de tres dimensiones principales: dimensión personal; dimensión social, puesto que estamos situados en una cultura y en una sociedad; y la dimensión cósmica, en cuanto que somos parte de la Naturaleza. En otro nivel de concreción, dicho con más exactitud, nuestro sistema educativo tiene como objeto el desarrollo de competencias educa-

